

**BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA
EKONOMIA MAHAI SEKTORIALA -HERRITARREN 1. BILERA (2021-05-18)**

Bertaratutakoak:

- Unai Barrutiabengoa (Eguren Garmendia Aholkulariak)
- Juanba Ayerbe (Enpresare + FCC elkarteak)
- Mila Elorza (Angiozar auzoa)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Aitor Gonzalez (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 18:00.

Udalak kontratutako aholkularitza-enpresako kideek, akta honekin batera doan aurkezpenaz baliatuz, eta “Bergara 2030 egin herrixa” prozesuaren baitan herritarrekin eginiko elkarrizketa saioetan jasotako ekarpenekin osaturiko diagnostikotik, udala formulazio estrategikorako lehen urratsak ematen hasi dela jakinarazi die gerturatutakoei.

Lehenik eta behin, apirilean izandako lehen herri-batzarrean herritarrekin eginiko lanketatik aholkularitza-enpresako kideek idatzi duten 2030erako ikuspegia azaldu da. Herritarrei 2030 urtean Bergarak izango dituen ezaugarri nagusiak zehazteko eskatu zitzaie eta gehien nabarmendu zituzten hitzekin osatu da **2030erako ikuspegia** (hau da, Bergararen etorkizuneko irudi desiragarria).

Ikuspegia:

“Bergara inklusiboa izango da 2030ean, adin, jatorri eta egoera ezberdinean aurkitzen diren herritarrei enpatiaz erantzungo diena. Ekonomia eredu jasangarriaren bidean, herritar orori lan-duina eskaintzen dion eta aldi berean natura zaintzen duen komunitatea izango gara, osasuna lehentasun moduan duen herri goxo batean bihurtu dena. Gizarte euskalduna izango da gurea, kultura-, kirola- eta hezkuntza-eskaintza zabala dituen. Ikuspegi partehartzaile eta feministatik erronka berriei aurre egiten dien auzo-herria izango gara..”

Bileraren helburua garapen ekonomikoa eta enplegua arloekin zerikusia duten helburu estrategikoak eta helburu zehatzak definitzen hastea izango da, udaleko mahai teknikoetan egin den lana osatzeari begira. Horretarako galdera honi erantzutea eskatu zaie bertaratu direnei: *Zer egin dezakegu 2030eko ikuspegia lortzeko?*. Galderari erantzuteko garapen ekonomikoarekin eta enpleguarekin zerikusia duten diagnostikotik eratorritako lehentasunezko jarduera-lerroak azaldu dira inspirazio moduan lagungarri izan zitezten.

Garapen ekonomikoari eta enpleguari loturik helburuak zehazteko lau azpi-arloen baitan ekarpenak egiteko tarte eman da eta ondoren horman zintzilikaturiko paperetan erantsi dira ideiak, amankomunean jartzeko helburuarekin.

Hauek izan dira azpi arlo bakoitzeko jaso diren ekarpenak:

INDUSTRIA:

- **Berrikuntza sustatu behar da eta lehen bultzadan ekintzaile berriei lagundu behar zaie.**
- **Bergarak erakarri egin behar ditu langile kualifikatuak, bertan bizi daitezen.**

- Enpresei bertan geratzeko aukera eman behar zaie.
- Formakuntza zentroyen eta enpresen arteko harremanak sendotu behar dira.
- Ekintzaile eta eragile ezberdinak elkarrekin lan egiteko espazioa sortzea (*Coworking* modukoa)
- Enplegu tailerrak antolatzea enpresa eta formakuntza ari diren edo enplegu bila dabiltzanen artean hartu-emanak bideratzeko (eskaera-eskaintza beharren lotura-guneak)

LEHEN SEKTOREA

- Lehen sektorea biziberritu behar da. Beharrezkoa da lehendabizi lehen sektorerako bideragarriak diren lurren egoera aztertzea (jabegotza, erabilpena, etab.). Ondoren lur erreserba edo bankuak sortu beharko lirateke nekazari berrientzako. Gazteei aukerak zabaltu behar zaizkie ildo honetan.
- Landa gunean konpromisoa lortu behar da autonomia lortzeko, jarduera bideragarri eta denboran mantentzen direnak bultzatuz.
- Marketing arloan ezagutza bultzatu behar da lehen sektorean, hau balioan jarriz.

MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

- Merkatarari eta ostalariak balioan jarri behar dira. Kontsumo-eredu berriak sustatu behar dira kontsumitzailea heziz eta komertzioarekiko harreman guneak eraikiz.
- Sektoreak laguntza eta bultzada behar du: udalaren esku dauden zergen gainean hobariak aplikatuz, etab.
- Turismoari begira lanketa handia egin beharra dago, bide berriak irekiz: kirolari loturiko turismoa, etab.

ENPLEGUA

- Auzoetan lehen mailako zerbitzuak eta bertatik lan egiteko aukerak zabaltu behar dira (internet sare azkar eta segurua bermatuz)

Dinamikarekin amaitu ostean, mahai sektorialaren hurrengo bileraren helburuak azaldu dituzte aholkulariek.

Bestalde, gaurko bilerara etortzeko aukerarik izan ez duten eragileei eta baita gaurko saiora bertaratu direnei ere, ekarpenak egiteko aste beteko epea ematea adostu da.

Honenbestez, bilera 19:15etan amaitu da.